



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko irailaren 14a

88. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Adierazpen instituzionala, Italiako erakundeen diskriminazioa pairatzen ari diren gutxiengo etnikoekiko eta kulturekiko elkartasunari eta babesari buruzkoa. Eledunen Batzarrak onetsia (4. or.).
- Adierazpen instituzionala, Ezkabako preso eta hildako errepublikanoen oroimenezko monumentuaren aurkako eraso faxistak gaitzesteko. Eledunen Batzarrak onetsia (4. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako zenbait eskualdetako gaixoen osasun-garraioaren zerbitzuari buruzkoa. Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (5. or.).
- Galdera, Arga ibaian, Ororbia parean, arrainak hil izanaren arrazoiei buruzkoa. María Gracia Iribarren Ribas andreak egina (5. or.).
- Galdera, Nafarroan udari begira egiten den kultur eskaintzari buruzkoa. Román Felones Morrás jaunak egina (6. or.).
- Galdera, Mendekotasunari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legetik heldu diren zerbitzu edo laguntza ekonomikoak emateko atzerapenaren arrazoiei buruzkoa. José Javier Monzón Romé jaunak egina (7. or.).
- Galdera, Nafarroako Unibertsitateak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erabiltzaile talde jakin batzuei osasun laguntza emateko kontratuari buruz Comptos Ganberak eginiko txosteneko gomendioak aplikatzeari buruzkoa. Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (8. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak hirugarrenei alokatutako bulegoei eta horien kostuari buruzkoa. Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (9. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak hirugarrenei alokatutako bulegoei eta Higiezin Planaren arabera hemendik aurrera alokatuko ez direnez gero ordaindu beharko ez den kostuari buruzkoa. Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (9. or.).
- Galdera, jakiteko ea Higiezin Planean bidezainen etxeen erabilera eta kudeaketa arloko neurririk jasotzen den, Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (10. or.).

- Galdera, jakiteko ea Higiezinaren Planean Gobernuak aintzat hartu duen Santa María la Real ikastetxea erosteko aukera, Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (11. or.).
- Galdera, Belate N-121 –Ostizko saihebidia– ardatzaren aurrekontu osoari buruzkoa, José María Vázquez Royo jaunak egina (11. or.).
- Galdera, ekainaren 30eko zerga arloko diru-sarreraren egoerari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (12. or.).
- Galdera, Arga ibaian ziprinidoak hil izanari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (12. or.).
- Galdera, Foruzaingoaren buruari buruzkoa, Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (13. or.).
- Galdera, Iruritako, Elizondoko eta Elbeteko saihebideari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (14. or.).
- Galdera, musika klasikoaren zabalkundea egiteko kontusailek ukitutako udalei eta entitateei bidalitako informazioari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (16. or.).
- Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak asmorik duen neurriak hartzeko Abaunzko haitzuloan aurki daitezkeen aztarna arkeologikoak babeste aldera, Ana Figueras Castellano andreak egina (17. or.).
- Galdera, Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren dirulaguntzei buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egina (18. or.).
- Galdera, ekainaren 17ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen deialdiko oinarrien arabera familiak dituen balioei buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (19. or.).
- Galdera, toki entitateek kirol instalazioetarako proposatutako laguntzei buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (19. or.).
- Galdera, lursail publikoan familiari eginiko monumentuaz Nafarroako Berdintasunerako Institutuak duen iritzari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (20. or.).
- Galdera, Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Lehen Hirurteko Planari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (20. or.).
- Galdera, SPRIN enpresa publikoari buruzkoa, Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (21. or.).
- Galdera, L'Urederra Fundazioaren instalazioei eta Tuterako nekazaritza-elikagaien hiriari buruzkoa, Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (22. or.).
- Galdera, Los Arcosko abiadura handiko zirkuituari buruzkoa, Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (23. or.).
- Galdera, Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (23. or.).
- Galdera, Mendillorriko igerilekuei buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (24. or.).
- Galdera, AP-15 autobiarren 111. eta 114. kilometro-puntuetan egiten ari diren lanei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (25. or.).
- Galdera, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Departamentuak behin-behinekotasunari buruz hartutako neurriei buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (25. or.).
- Galdera, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Departamentuaren zerbitzuen erabiltzaileei buruzko datuak zentralizatzeko sistemari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (26. or.).
- Galdera, Txulapaingo eta Itzagako suteei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (26. or.).
- Galdera, abuztuaren 29an Baztan ibaira isuritako gasolioari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (27. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Komunitatean uztailean eta abuztuan gertatutako suteei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (28. or.).
- Galdera, gazteen sexu-joerari buruz 2008ko irailaren 26an onetsitako mozioari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (28. or.).
- Galdera, Tuterako Reina Sofia Ospitaleko Endokrinologia Zerbitzuko gaixoei buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egina (29. or.).
- Galdera, podologiako laguntzari buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egina (30. or.).
- Galdera, genetikoki eraldatutako laboreen kontrol neurriei, azterlanei eta hedapenari buruzkoa, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (30. or.).

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Adierazpen instituzionala, Italiako erakundeen diskriminazioa pairatzen ari diren gutxiengo etnikoekiko eta kulturalekiko elkartasunari eta babesari buruzkoa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2007ko irailaren 7an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak elkartasunari eta babesari adierazten die Italiako erakundeen diskriminazioa pairatzen ari diren gutxiengo etnikoekiko eta kulturalekiko, eta gizarteari eskatzen dio egoera horren berri eman dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak erabateko arbuioa adierazten du bazterkeria edo arrazakeria mota ororen aurrean, are gehiago erakundeek sustatua bada, eta eskatzen du nazioarteko komunitateak esku har dezan giza eskubideen eta bazterkeria

mota ororen aurkako Europar Batasuneko zuzentarauen urraketa hori argitze aldera.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari eskatzen dio Kanpo Arazoetako Ministerioaren bidez helarazi diezaien arbuio-adierazpen hau Italiako erakunde eskudunei, zeini eskatzen baitie politika ez-baztertzailerak abian jartzeko, pertsona guztien eskubide guztiak errespetatzeko xedea dutenak, kontuan hartu gabe haien sexua, adina, etnia edo kultura.”

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Adierazpen instituzionala, Ezkabako preso eta hildako errepublikanoen oroimenezko monumentuaren aurkako eraso faxistak gaitzesteko.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2009ko irailaren 7an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1.- Nafarroako Parlamentuak gaitzesten ditu 1938ko maiatzaren 22an Ezkabako gotorlekutik ihes egin eta eraildako preso errepublikanoen oroimenezko monumentuaren aurkako eraso faxistak. Halaber, oroimen historikoaren aurkako eraso guztiak gaitzesten ditu.

2.- Nafarroako Parlamentuak adierazten du aipatu monumentuaren berehalako konponketa babesteko borondatea duela, eta, hala, Nafarroako Gobernuari eskatzen dio konponketa horretarako laguntza eman dezan.

3.- Nafarroako Parlamentuak uste du eraso horiek ezin daitezkeela zigorrik gabe geratu, eta erasotzaileak atxilotu eta justiziaren aurrera eramane behar direla.

4.- Nafarroako Parlamentuak lan egiteko borondatea agertzen du. oroimen historikoaren aurkako indarkeria-ekintzak egiten dituztenak arbuioak eta gizartean zokoratuak izan daitezken.

5.- Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazten die kaltetu guztiei eta oroimen historikoaren sustapenaren alorrean lan egiten duten taldeei.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako zenbait eskualdetako gaixoen osasun-garraioaren zerbitzuari buruzkoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako zenbait eskualdetako gaixoen osasun-garraioaren zerbitzuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

- Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariaren ustez, garraio-zerbitzuaren proiektua nafar guztiei berdintasunez emanen zaien zerbitzu bat izanen da?

- Eta nola azaltzen du kontseilari andreak Lizarran bizi den pertsona batek doako garraio-zerbitzua izatea Iruñera etortzeko eta, esaterako, Pirinioetan bizi denak ez izatea garraio-zerbitzurik gauza bera egiteko?

Iruñean, 2009ko uztaiaren 16an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde

Galdera, Arga ibaian, Ororbia parean, arrainak hil izanaren arrazoiei buruzkoa.

MARÍA GRACIA IRIBARREN RIBAS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Gracia Iribarren Ribas andreak aurkeztutako galdera, Arga ibaian, Ororbia parean, arrainak hil izanaren arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari M.^a Gracia Iribarren Ribasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu dio Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariari, Batzordean ahoz erantzun dezan:

Zer dela-eta hil dira ehunka arrain Arga ibaian, Ororbia parean, eta zer neurri hartu ditu Ingumen Departamentuak egoera hobetzeko? Departamentuak ba al daki nork eragin dituen kalteak? Hala bada, hartu al da neurririk horri dagokionez?

Iruñean, 2009ko abuztuaren 4an

Foru parlamentaria: María Gracia Iribarren Ribas

Galdera, Nafarroan udari begira egiten den kultur eskaintzari buruzkoa.**ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroan udari begira egiten den kultur eskaintzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Zioen azalpena

Diario de Navarra egunkariak, bere edizio paperezkoan nahiz digitalean, inkesta bat agertu ohi du egunero, irakurleek intereseko edo gaurkotasuneko gai baten inguruan zer iritzi duten eza gutze aldera.

Inkestaren zientifikotasuna alde batera utzita, datua giroa aztertze modu bat da, interesgarria dena herritarrek kasuan kasuko gaiari buruz duten iritzia ezagutzeko.

Eginiko galderen artean, abuztuaren 8an eta 9an edizio digitalean eta 9an paperezkoan, ondoko galdera egin zen: Gustura al zaude Nafarroan udan egiten den kultura eskaintzarekin? Eraitza honako hau izan zen:

Bai: % 19

Ez: % 81

Datuak eztabaidaekin direnez, hau jakin nahi dut:

1.- Nafarroako Gobernuak bat egiten al du inkestan adierazten den iritziarekin?

2.- Zein da Nafarroako Gobernuaren iritzia erakunde horrek sustatzen duen kultur eskaintzari dagokionez?

3.- Zer iritzi du Cultur eta Erriberriko Antzerki Jaialdiari buruz, ikusle kopuruari buruzko datuak alde batera utzita?

4.- Ikusirik eraitza eztabaidaekin dela, Gobernuak ba al du asmorik jendearen iritzi kasikarra hobetze aldera?

Iruñean, 2009ko abuztuaren 17an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, Mendekotasunari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legetik heldu diren zerbitzu edo laguntza ekonomikoak emateko atzerapenaren arrazoiei buruzkoa.

JOSÉ JAVIER MONZÓN ROMÉ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Monzón Romé jaunak aurkeztutako galdera, Mendekotasunari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legetik heldu diren zerbitzu edo laguntza ekonomikoak emateko atzerapenaren arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Javier Monzón Romék, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Batzordean ahoz erantzuteko:

Zioen azalpena

Jakina denez, Nafarroako Parlamentua oro har –eta bereziki Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldea eta parlamentari hau– kezkatuta dago Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legea –Mendekotasunaren Legea deiturikoa– aplikatzeko modurik egokienaz.

Gure taldeak ardura hori konpromiso zehatzean gauzatu du askotan, bai Parlamentuan laguntza emanez arauaren garapenerako, bai aurrekontuak babestuz. Baina, Parlamentuan laguntza hori emateaz gain, beharrezkoak diren eskakizunak ere egin ditugu, aipatu legearen aplikazioa esku-zabaltasunez eta arretaz egin dadin Nafarroan.

Hori dela eta, asko kezkatu gara ikusi dugunean Iruñe Jiménez Ugalde andreak Mendekotasunaren Legearen gainean eginiko iruzkin-salaketa, 2009ko abuztuaren 29an Diario de Noticias egunkariko gutunen sailean eta 2009ko abuztuaren

30ean Diario de Navarra egunkarikoan. Halaxe dio:

“Askok ikusiko duzue zuen burua lerro hauetan islatuta: urtarriletik, nire amonak aitortuta du 2. mailako mendekotasun handia; hau da, mendekotasun maila handiena dauka. Behar zituen zainketak zirela eta, martxoan erabaki genuen egoitza batean sartzea, eta hantxe dago gaur egun ere.

Harrezkero, 2.450 euro inguruko kuota ordaintzen dugu hilean. Baina orain arazoak ditugu ordaintzeki aurre egiteko.

Zorioneko sentitzen gara hilabete hauetan guztietan ordaindu izan ahal dugulako, baina ulertuko duzue, behiak ez du guztiontzat esnea berdin ematen. Badakit badirela beste errealitate batzuk. Esaterako, familia batzuek egoitza ordaindu gabe uzten dute laguntzaren baten zain; beste batzuk etxean nekez izaten dituzte familiakideak, ez baitute nahiko dirurik bestelako baliabideak eskuratzeko.

Gaur egun, ez dakigu ezer Nafarroako Mendekotasun Agentziaz, horrek baitu ardura, hain zuzen, postu itundu bat emateko, edo halakorik izan ezean zerbitzuari lotutako laguntza bat. Izan ere, egoitza ordaintzeko laguntza bat jasotzeko eskubidea dugu.

Bederatzi hilabete igaro dira mendekotasunaren balorazioa hasi genuenetik, eta hilabete horietan ohartu naiz prozesu horiek konplexuegiak direla Mendekotasunaren Legeari buruz ezer ez dakigun pertsona arruntentzat. Familia asko nekaz daude prozesu burokratikoek hainbeste aldaketa izaten dituztelako.

Eskaera hazten ari da eta teknikari gehiago behar dira herritarren beharrak asetzeko. Izan ere, legeak eta dekretuak onesten dira horrek dakarnerako prest egon gabe. Zein da horren ondorioa? Profesional estresatuak eta familia etsituak.

Laguntzen eta baliabideen epeak atzeratu egi ten dira, askok maileguak eskatzen dituzte, beste batzuek aurrezketara jotzen dute egoitza ordaintzeko edo norbait kontratatzeke bere kabuz maldatzeko arazoak dituen pertsona zaintzeko.

Asko gara aldaketak bultzatuz ditzakegunak etorkizun hobea izatea aldera, bakoitza bere ardura baliatuz eta maila desberdinetan; izan ere, asko

dira, beren egoera dela-eta, familiaren laguntza ez duten pertsonak, baina ezin dituzte beren eskubideak baliatu, inork ez dituelako ordezkatzen. Hori dela eta, eskerrak eman nahi dizkiet irribarre baten bidez edo lan eraginkor baten bidez artatzen gaituztenei eta prozesu guztiak ahalik eta eramangarrien egiten saiatzen direnei; halaber, nire kritikarik zorrotzena askotariko arrazoiengatik lan hori egiteari utzi dietenei.

Berriro ere, burokraziak ezin dio jarraitu pertsonen bizitzako prozesuen erritmo naturalari. Baina, hala ere, ezin dugu ahaztu betebeharrak bat dugula: pertsonen onurarako izanen diren aldaketak abian jartzen saiatzeko gutxieneko betebeharra; izan ere, pertsona horiek eskatzen dutena lege batek ematen dien eskubidea besterik ez da.”

Ez diot sinesgarritasunik kendu edo eman nahi Iruñe Jiménez Ugalde andreak eginiko eskaera-

salaketari, baina ezin da saihestu, larria izateaz gain egiazkoa dela baitirudi. Hori dela eta, parlamentari honek ondoko galdera aurkeztu du, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Batzordean ahoz erantzuteko:

Publikoki agertu eta salatutako gertakari horiek egiazkoak badira, zer arrazoi ezohikok justifika dezake Nafarroako Gobernuak Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legetik eratorritako zerbitzuak edo horien ordezkoko dirulaguntzak atzerapenez ematea, kasu honetan azaltzen bezala? Zer neurri hartu dira edo hartuko dira egoera hori eta antzeko beste batzuk berehala konpontze aldera?

Iruñean, 2009ko abuztuaren 31n

Foru parlamentaria: José Javier Monzón Romé

Galdera, Nafarroako Unibertsitateak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erabiltzaile talde jakin batzuei osasun laguntza emateko kontratuari buruz Comptos Ganberak eginiko txosteneko gomendioak aplikatzeari buruzkoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Unibertsitateak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erabiltzaile talde jakin batzuei osasun laguntza emateko kontratuari buruz Comptos Ganberak eginiko txosteneko gomendioak aplikatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Comptos Ganberak txostena egin du Nafarroako Unibertsitateak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erabiltzaile talde jakin batzuei osasun laguntza emateko kontratuari buruz, eta bertan gomendatzen da aztertzea norberaren baliabide publikoen bidez zerbitzua emateko ezintasuna, eta ezintasun hori teknikoki aztertzea, bai eta zerbitzua norberaren baliabideen bidez emateak ekarriko lukeen kostua ere. Noiz hasiko da zure departamentua ezintasun hori aztertzen?

Iruñean, 2009ko abuztuaren 31n

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde

Galdera, Nafarroako Gobernuak hirugarrenei alokatutako bulegoei eta horien kostuari buruzkoa.

JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan José Lizarbe Baztán jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak hirugarrenei alokatutako bulegoei eta horien kostuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan

José Lizarbe Baztánek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatzizko erantzuna eman diezaion:

Zioak

Iragan ekainaren 29an, Nafarroako Gobernuak onetsi zuen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen higieziari eta administrazio-bulegoei buruzko Plana, 2009-2011 aldirako. Plan hori Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak 2007ko amaieran aurkeztu eta Parlamentuak onetsitako mozio baten ondorio da.

Hori dela eta, hau jakin nahi dut:

– 2009ko ekainaren 30ean, zenbat metro koadro dauzka Nafarroako Gobernuak hirugarrenei alokatuta –bulegoak edo bestelako egoitzak– eta zein da horrek dakarren urteko kostua?

Iruñean, 2009ko uztailaren 3an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

Galdera, Nafarroako Gobernuak hirugarrenei alokatutako bulegoei eta Higieziaren Planaren arabera hemendik aurrera alokatuko ez direnez gero ordaindu beharko ez den kostuari buruzkoa.

JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan José Lizarbe Baztán jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak hirugarrenei alokatutako bulegoei eta Higieziaren Planaren arabera hemendik aurrera alokatuko ez direnez gero ordaindu beharko ez den kostuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztánek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera hau aurkeztu du, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak idatzizko erantzuna eman diezaion:

Zioak

Iragan ekainaren 29an, Nafarroako Gobernuak onetsi zuen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen higiezi- nei eta administrazio-bulegoei buruzko Plana, 2009-2011 aldirako. Plan hori Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak 2007ko amaieran aurkeztu eta Parlamentuak onetsitako mozio baten ondorio da.

Hori dela eta, hau jakin nahi dut:

Gobernu Kontseiluak iragan ekainaren 29an onetsitako Higiezi- nei buruzko Planaren –bere izen ofizialarekin– ondorioz, Nafarroako Gobernuak hirugarrenei alokatuta dituen metro koadroetatik zenbat alokatzeari utziko dio? Zenbateko kostua aurreztuko da horren ondorioz?

Nahiko nuke erantzunean adieraztea lokalen kokapena, zein zerbitzura dauden atxikita, tamaina, alokairuaren kostua eta alokairuaren epemuga (kontratuaren arabera eta praktikan izandakoa).

Iruñean, 2009ko uztailaren 3an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

Galdera, jakiteko ea Higiezi- nen Planean bidezainen etxeen erabilera eta kudeaketa arloko neurri- rik jasotzen den.

JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzar- rari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, bes- teak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan José Lizarbe Baztán jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Higiezi- nen Planean bidezainen etxeen erabilera eta kudeaketa arloko neurri- rik jasotzen den.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziale- n argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltza- rreko Erregelamenduko 192. artikulua aginduta- koari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parla- mentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztánek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera hau aurkeztu du, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak idatzizko erantzuna eman diezaion:

menduan xedatuaren babesean, ondoko galdera hau aurkeztu du, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak idatzizko erantzuna eman diezaion:

Zioak

Iragan ekainaren 29an, Nafarroako Gobernuak onetsi zuen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen higiezi- nei eta administrazio-bulegoei buruzko Plana, 2009-2011 aldirako. Plan hori Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak 2007ko amaieran aurkeztu eta Parlamentuak onetsitako mozio baten ondorio da.

Hori dela eta, hau jakin nahi dut:

Gobernu Kontseiluak iragan ekainaren 29an onetsitako Higiezi- nei buruzko Planaren –bere izen ofizialarekin– ondorioz, aurrekusi al da neurri- rik Nafarroako zenbait tokitan dauden bidezainen etxeak kudeatzeko eta erabiltzeko?

Iruñean, 2009ko uztailaren 3an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

Galdera, jakiteko ea Higiezin Planean Gobernuak aintzat hartu duen Santa María la Real ikastetxea erosteko aukera.

JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan José Lizarbe Baztán jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Higiezin Planean Gobernuak aintzat hartu duen Santa María la Real ikastetxea erosteko aukera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztánek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera

hau aurkeztu du, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak idatzizko erantzuna eman diezaion:

Zioak

Iragan ekainaren 29an, Nafarroako Gobernuak onetsi zuen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen higieziari eta administrazio-bulegoei buruzko Plana, 2009-2011 aldirako. Plan hori Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak 2007ko amaieran aurkeztu eta Parlamentuak onetsitako mozio baten ondorio da.

Hori dela eta, hau jakin nahi dut:

Duela gutxi onetsitako Higieziari buruzko Planaren testuan edo alde aurreko eztabaidan, kontuan izan al du Gobernuak Santa María la Real Ikastetxeak (Maristak) bere hezkuntza proiektua garatzen zuen eraikina erosteko aukera, bertan administrazio-zerbitzuak edo bestelakoak bateratzeko eta, hala, alokatutako lokalen kopurua murrizteko eta ondarearen kudeaketa optimizatzeke?

Iruñean, 2009ko uztailaren 3an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

Galdera, Belate N-121 –Ostizko saihebidia– ardatzaren aurrekontu osoari buruzkoa.

JOSÉ MARÍA VÁZQUEZ ROYO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José María Vázquez Royo jaunak aurkeztutako galdera, Belate N-121 –Ostizko saihebidia– ardatzaren aurrekontu osoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José María Vázquez Royok, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak idatziz erantzun dezan:

– Zein izan da “Belate, N-121-A, Ostizko saihesbideko ardatza” egiteko lanen likidazioaren aurrekontu osoa?

– Obraren likidazioan aurrekontu-desbideratzerik izan bada, zein izan da horren ehunekoa?

Iruñean, 2009ko uztailaren 3an

Foru parlamentaria: José M.^a Vázquez Royo

Galdera, ekainaren 30eko zerga arloko diru-sarreraren egoerari buruzkoa.*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, ekainaren 30eko zerga arloko diru-sarreraren egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuako Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari, idatziz erantzun diezai-on:

Zein da zerga bidezko dirusarreraren egoera atal guztietan, ekainaren 30ean?

Iruñean, 2009ko uztailaren 17an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Arga ibaian ziprinidoak hil izanari buruzkoa.*AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Arga ibaian ziprinidoak hil izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Iragan abuztuaren 2an, goizean, ehunka arrain hil agertu ziren Arga ibaiko sei kilometroko tarte batean. Orain arte, ehunka ziprinido hil jaso dira (karpak eta barboak), horiek baitira eskualde horretan zabalduen dauden espezieak.

Dirudenez, Orkoien-Arazuri industrialdeko euri urak biltzeko kolektore baten bidez kontrolik gabe eginiko isuri bat izan da Arga ibaian izandako arrain-hiltzearen eragilea.

Egunkarietan jasotako informazioaren arabera, horren arrazoia izan liteke enpresa batek larunbatean eginiko isuri bat, baina ezin daitezke baztertu

kate-hilketa bat eragin dezaketen beste faktore batzuk, hala nola ekaitza batek ibai-hondoa nahastea eta oxigenoa ahitzen duten bakterioak askatzea.

1. Zein izan da Arga ibaian ehunka ziprinido hiltzearen arrazoia?

2. Ehunka arrain hiltzeaz gain, izan al da beste-lako ingurumen-kalderik?

3. Behin jakinda eskualde horretan lanean ari diren teknikariek eginiko azterketen emaitza, zer neurri hartuko ditu Nafarroako Gobernuak berriro halakorik ez gertatzeko?

4. Zeintzuk izan dira isuri diren substantzia kaltegarriak?

Iruñean, 2009ko abuztuaren 4an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Foruzaingoaren buruari buruzkoa.**AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriaren entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amanda Acedo Suberbiola andreak aurkeztutako galdera, Foruzaingoaren buruari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Lehendakariari, Barne eta Justizia Departamentuari:

Zioak

2007ko azaroan, baimena eman zitzaion Foruzaingoaren buru Fernández jaunari Polizia Nazionalaren kidegoko komisario nagusi izateko ikastaroa egiteko.

2008ko otsailean bere eginkizunetara itzuli zen eta haren behin-behineko ordezkapena amaitu zen.

2007ko abenduan Foruzaingoaren buruaren lanpostua "hutsik" zegoela ageri zen, eta, beraz, ondoko galderak idatziz erantzutea nahi dut.

1.- Nolaz deklaratu zen hutsik lanpostu hori, baimen berezia zuen eta zerbitzu aktibo egoeran dagoen pertsona batek betetzen bazuen?

2.- Lanpostua hutsik bazegoen, non argitaratu zen Foruzaingoaren buruaren kargu-uztea?

3.- Ez bazen kargu-uzterik izan, zergatik deklaratu zen hutsik lanpostua?

4.- Noiz egin zen goian aipatutako ikastaroa?

5.- Fernández jaunari lanpostua uzteko baimena eman zitzaion, ikastaro bat egiteko. Egin al zuen ikastaro hori? Hala bada, ikastaroa egin izanaren egiaztatzea jaso nahiko nuke, bertan ikastaroaren data eta emaitzak agertzen direla.

Eta ikastaroa egin bazuen, aldi horretan, egoera aktiboan egon al zen Polizia Nazionalean lehen zeukan postuan? Polizia nazional gisa zegozkion ordainsariak jasotzen zituen eta ez Foruzaingoaren buruari zegozkionak?

6.- Lanpostutik kanpo egon zen denboran –2007ko azarotik 2008ko otsailera– mantendu egin al ziren ondasunetan egiten zitzaizkion ordainsariak? Ba al zen funts publikoekin ordaindutako pisu alokaturik haren erabilerarako? Hala bada, zergatik ez zen alokairua eten? Edota asmoa zen haren kostua ondorengo ordainsarietatik kentzea?

7.- Lanpostua hutsik egonda, eta Fernández jauna ez bazegoen zerbitzu berezien egoeran bai-

zik eta “baimenarekin,” zergatik ez zen berriro izendatu lanpostura itzuli zenean?

8.- Aipatu ikastaroa egin zuzenean era aktiboan betetzen al zuen Foruzaingoaren buruaren kargua? Hala bada, noiztik eta noiz arte?

9.- Edonola ere, zenbateko gastuak ordaindu dira ikastaro hori dela eta, bidaiak, segurtasuna, dietak, ostatu-gastuak eta abar barne direla?

10.- 2008an eta 2009an, zenbatetan, zergatik eta zenbat denbora egon da Fernández jauna Foruzaingoaren buruaren lanpostutik kanpo, eta horietako zenbatetan ordezkatu da behin-behinekoz, hura lanera itzuli arte?

Iruñean, 2009ko abuztuaren 4an

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

Galdera, Iruritako, Elizondoko eta Elbeteko saihebideari buruzkoa.

JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Iruritako, Elizondoko eta Elbeteko saihebideari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan.

Irurita, Elizondo eta Elbeteko erdiguneetatik igaro beharrik ez izateko N-121-B errepidean kanpoko saihebidetako egiteko proiektua dezente atzeratu da, kontuan hartzen baditugu aurreikusitako epeak, bai bere garaian Herri Lan, Garraio

eta Komunikazio kontseilariak zenak iragarritakoak, bai gaur egungo kontseilariak iragarritakoak.

Lan hori sartuta zegoen 2002-2009 urteetarako Nafarroako Errepideen II. Plan Zuzendarian. Aurreikuspenen arabera, 2004an hasi eta 2006rako bukatuta egon behar zuen. 2006ko azaroan, aurreko Herri Lan kontseilariak aurkeztu zuen saihebidetako horri buruzko azterlan informatiboa eta iragarri zuen lanak 2007ko azken hiruhilekoan esleituko zirela eta 2009ko uda baino lehen amaituta egonen zirela.

Lan horiek sartu ziren 2007ko urtarrilean aurkeztutako Nafarroako Errepideen Sareko Inbertsioak Azkartzeko Planean, 9,4 milioi euroko aurrekontuarekin, eta obrak bukatzeko aurreikuspena 2009ko lehen hiruhilekora aurreratu zen.

2008 ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorren oroitidazkian, Irurita-Elizondo saihebidetako agertzen zen Errepide Sareko Esku-hartzeak Azkartzeko Planaren barruan egoteagatik 2008an amaitu beharreko lanen artean. Parlamentari honek eskatuta Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak iragan 2008ko maiatzaren 29an Nafarroako Parlamentuan eginiko agerraldian, adierazi zuen proiektua idatzita zegoela, onspen tekniko eman zitzaioela eta jendaurrean ipini zela, apirilaren 15eko 33/2008 Foru Aginduaren bidez. Aurreikuspenen arabera, proiektua jendaurrean

egonen zen 2008ko ekainaren 2ra arte, eta ondoren behin betiko onespena emanen zitzaion.

Parlamentari honek eginiko galdera bati erantzunez, aurtengo otsailaren 18an, kontseilari andreak jakinarazi zuen, aurreikuspenen arabera, proiektua hilabete horretan onartuko zela behin betiko, eta ondoren obraren lizitazio-prozesuari ekinen zitzaiola.

Horren ondotik, Nafarroako Gobernuak, martxoaren 2ko bilkuran, erabaki zuen baimena ematea Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilari Laura Alba andreaki Elizondoko saihebidetako lanak kontratatzeko, 13.029.078,02 euroko aurrekontuarekin.

Nafarroako Gobernuak lehendakari Miguel Sanz jaunak berak esan zuen Gobernuak Lekarozen eginiko bilkuraren ostean aipatu saihebidetako "urte eta erdian" errealitate bilakatuko zela. Gaur egun, saihebidetaren trazadura aurreikusita dagoen tarte Iruñetik Dantxarinearara, Baztango haranetik barrena, doan N-121-B errepidearen zati arriskutsuetako bat da, eta bertatik 3.000 ibilgailu igarotzen dira egunean, Gobernuak berak aitortu duenez.

Gaur, abuztuak 5, bost hilabete bete dira Nafarroako Gobernuak zalaparta handiz hartu zuela erabaki hura; hain zuzen, hasierako aurreikuspenekiko hiru urteko atzerapena daraman proiektu bat onesteko. Hala ere, Administrazio organoek –ez Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departa-

mentuak, ez haren menpekora den Sociedad de Promoción de Inversiones e Infraestructuras de Navarrak– ez du lan horiek kontratatzeko izapiderik hasi.

Hori dela eta, denbora asko iragan denez, hauxe jakin nahiko nuke:

a) Zergatik departamentuari lanak kontratatze baimena eman eta bost hilabete geroago ez dira hasi Nafarroako Gobernuak baimendu eta Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari agindutako kontratazio-izapideak?

b) Zein da proiektuaren egoera gaur egun? Lehendakariak jarraitzen al du esaten saihebidetako "urte eta erdian" errealitate bilakatuko dela?

c) Noiz egingen da obrak kontratatzeko deialdia?

d) Komenigarria al da Baztango biztanleei eta N-121-B errepidearen erabiltzaileei azalpen sinetsgarri bat ematea, oro har, proiektu horren izapidetze, esleipen eta exekuzioaren atzerapenar buruz? Izan ere, 2002-2009 urteetarako Errepideei buruzko Plan Zuzendariaren arabera, proiektu horrek 2006an egon behar zuen amaituta, eta Nafarroa 2012. Errepide Sareko Esku-hartzeak Azkartzeko Planaren arabera, 2009ko lehen hiruhilekoan.

Iruñean, 2009ko abuztuaren 5ean

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa
Imaz

Galdera, musika klasikoaren zabalkundea egiteko kontusailek ukitutako udalei eta entitateei bidalitako informazioari buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, musika klasikoaren zabalkundea egiteko kontusailek ukitutako udalei eta entitateei bidalitako informazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, idatziz erantzuteko.

Zioen azalpena

2008ko azaroaren 13ko Osoko Bilkuran, sozialisten parlamentu-taldeak aurkeztutako jabeldura bat eztabaidatu zen, musikaren alorreko politika orokorrari buruzkoa. Gobernua eta sozialisten parlamentu-taldea ez zetozen bat sektorearen egoera aztertzerakoan, sozialisten parlamentu-taldeak mozio bat aurkeztu zuen, Parlamentuko Osoko Bilkurak eztabaidatu eta aho batez onetsi zuena. Mozio haren bidez Gobernua premiatzen zen Nafarroan musikak duen egoerari buruzko azterlan bat egin zezan, horren ondorioz prestakuntzari, interpretazioari, zabalkundeari eta sorkuntzari

buruzko plan bat egiteko. Onetsitako erabakiren 4. idatz-zatiaren arabera, "aipatu azterlan-txostena Nafarroako Parlamentuko Kultura eta Turismo Batzordean aurkeztuko da, 2009ko irailaren 30a baino lehen, 2010eko aurrekontuetan sartze aldera plan horretan jasotako ekintzak aurrera eraman ahal izateko beharrezkoak diren kontusailak".

Mozioan aurreikusitako ildoetakoren bat abian jartze aldera, sozialisten parlamentu-taldeak bi zuzenketa aurkeztu zizkien 2009ko aurrekontuei, aho batez onartu zirenak zegokion Batzordean. Hona hemen zuzenketak:

1. Musika Plan Zuzendaria. Nafarroako taldeek musika klasikoa kultur etxeetan zabaltzeko programa.

2. Musika Plan Zuzendaria. Musika klasikoa zabaltzeko programa, Tuteran, Lizarran eta Zangozako auditorioetan.

Dakigunez, 2009ko lehen hilabeteetan, ukitutako udalek eta entitateek ez zuten kontusail horiek berririk, ez eta haien garapenarenik ere.

Afera zer egoeratan dagoen jakiteko, honako en berri izan nahi dugu:

1.- Informaziorik eman al zaie ukitutako udal eta entitateei aurrekontuetako bi kontusail horiei buruz? Prozedura eta ukitutako udal eta entitate bakoitzari eginiko jakinarazpenaren data jakin nahiko nituzke.

2.- Zein da garatu nahi den programa zehatza? Aipatu programazioaren xehetasunak: tokiak, datak eta taldeak.

3.- Zer irizpide erabili da Nafarroako taldeak hautatzerakoan, aipatu kontusailtako lehenengoiari dagokionez?

Iruñean, 2009ko abuztuaren 5ean

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak asmorik duen neurriak hartzeko Abaunzko haitzuloan aurki daitezkeen aztarna arkeologikoak babeste aldera.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak asmorik duen neurriak hartzeko Abaunzko haitzuloan aurki daitezkeen aztarna arkeologikoak babeste aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentariaren elkarteko parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzuteko:

Zioen azalpena

Aragoiko hedabide batean agertu eta zenbait hedabide nazionalak zabalduko berri batek dioenez, Zaragozako Unibertsitateko zientifiko talde batek txosten bat argitaratu du nazioarteko aldizkari zientifiko batean, eta txosten horren arabera, Ultzamako Arraitz herriko Abaunzko kobazuloan harri bat aurkitu dute, Abaunzko inguruaren paisaia zehazten duen ebakiz betea. Hori da, ziurrenik, Europako maparik zaharrena.

Horraino berri onak, baina aurkikuntzak agerian utzi du, baita ere, Abaunzko haitzuloaren inguruak eta sarrera erabat utzita daudela, sasiz eta zaborrez beteta, eta edozeinek sartu eta aztarna arkeologikoak, mapa grabatua duten harrien moduan gizakien iraganari buruzko aurkikuntza garrantzitsuak izan daitezkeenak, hondatu edo ostu ditzakeela.

Galdera

Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du neurririk hartzea Abaunzko haitzuloan egon daitezkeen aztarna arkeologikoak zaintzeko?

Iruñean, 2009ko abuztuaren 5ean

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren dirulaguntzei buruzkoa.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren dirulaguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galderak aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzuteko:

Zioen azalpena

2006tik, Nafarroako Gobernuak, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuaren bidez, onetsi zuen Nafarroako Berdintasunaren Institutuak Nafarroako toki entitateei ematen dizkien dirulaguntzak arautzen dituen deialdia.

Nafarroako Foru Komunitateko Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako I. Planean

(2006-2010) bada zeharkako arlo bat, zeinak jasotzen baitu atal bat Toki Administrazioako berdintasun politikei buruzkoa. Bertan aitortzen da beharrezkoa dela bultzatzea Nafarroako toki entitateek emakumezkoen eta gizonezkoen aukera berdintasunarekin duten konpromisoa. Horrekin lotuta, 1.8. helburuko 1.8.5. ekintzan proposatzen da aukera berdintasunerako eragileen kontratazioa sustatzea.

Plana diruz laguntzeko egin behar diren gastuetarako jarritako zenbatekoak ondokoak dira:

Urtea	Kopurua
2006	363.861 €
2007	255.861 €
2008	244.100 €
2009	350.000 €

Parlamentari honek hau jakin nahiko luke, urte bakoitzari dagokionez:

- Dirulaguntza eskatu duten toki entitateen zerrenda.
- Kontusail horietatik dirulaguntza jaso duten toki entitateen zerrenda.
- Dirulaguntza jaso duen toki entitate bakoitzari emandako zenbatekoa.
- Nafarroako Berdintasunaren Institutuaren arazoak dirulaguntza ukatzeko (halakorik gertatuko balitz).

Iruñean, 2009ko abuztuaren 6an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, ekainaren 17ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen deialdiko oinarrien arabera familiak dituen balioei buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, ekainaren 17ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen deialdiko oinarrien arabera familiak dituen balioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Ekainaren 17ko Foru Aginduari buruzko galdera.

Zure departamentuaren iritziz, zeintzuk dira familiak berezkoak dituen balioak, ekainaren 17ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutako deialdiaren oinarrietan ezarritakoaren arabera?

Iruñean, 2009ko abuztuaren 10ean

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, toki entitateek kirol instalazioetarako proposatutako laguntzei buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, toki entitateek kirol instalazioetarako proposatutako laguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Toki entitateei ematen zaizkien laguntzei buruzko galdera.

• Zenbat laguntza proposatu dituzte toki entitateek aurrean beren kirol instalazioetarako?

• Zenbat laguntza ukatu zaizkie udal horiei?

Iruñean, 2009ko abuztuaren 10ean

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, lursail publikoan familiari eginiko monumentuaz Nafarroako Berdintasunerako Institutuak duen iritziari buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, lursail publikoan familiari eginiko monumentuaz Nafarroako Berdintasunerako Institutuak duen iritziari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Iruñeko Civicanen ondoan dagoen familiaren oroigarriari buruzko galdera.

Zein da Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren iritzia lurzati publiko batean jarritako familiaren oroigarria dela-eta, haren esanahia eta irudien tamaina ikusirik?

Iruñean, 2009ko abuztuaren 10ean

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Lehen Hirurteko Planari buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Lehen Hirurteko Planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak, Legebiltzarreko Erregela-

menduko 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzuteko.

Zioen azalpena

Nafarroako Gobernuak eta PSN-PSOEek sinatutako Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Lehen Hirurteko Planaren 6. puntuak honela dio: "Zabalkuntza eta bisiten programa. Esku-hartzeek, garrantzitsuak direnean, zabalkuntza-programa bat izan beharko dute, horien funtsezko osagai gisa. Normalean material idatzi eta ikus-entzunezkoen bidez jardungo da.

Esku-hartzeak dirauen bitartean, herritarrentzako bisita-programa bat jarriko da abian, ondaren interesak eta ezaugarriek ahalbidetzen badute.

Arreta berezia eskainiko zaie ikasleei eta hiru garren adinekoel.

Printzipio horren arabera, Nafarroako Parlamentuko Kultura eta Turismo Batzordeak ebazpen

bat onetsi zuen, aho batez, iragan martxoaren 24an. Ebazpen horren 2. idatz-zatiak hauxe dio:

“Uxueko eliza-gotorlekua aipatu planean aurreikusitako jardueren barruan dagoenez, eta kontuan hartuta (...) herri horrek dituen ezaugarri bereziak, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du lehenbailehen bete dezan 6. artikuluan aurreikusitakoa eta ondo jarduerak abian jar ditzan:

– Egiten ari den jardueraren zabalkuntza-programa.

– Bisita-programa globala, herritarrentzat irekia, obrak irauten duten bitartean.

– Ikasleentzako eta hirugarren adinekoentzako programa berezia.”

Bestalde, hedabideek aste honetan jaso dute Nafarroako Gobernuak aurreikusi duen Uxueko bisitaldien programa. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldea poztu egiten da Gobernuak abian jarri duelako Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Lehen Hirurteko Planean aurreikusitakoa eta Kultura eta Turismo Batzorde-

ak espresuki eskatutakoa; baina, halaber, tamalgarrira iruditzen zaigu eskaintza hain urria izatea, Uxuezeleak elkartek dioenez; izan ere, horrek agerian uzten du programaren anbizio eskasa.

Aurrekoak ikusirik, hau jakin nahi dut:

1.- Nafarroako Gobernuak uste du proposatutako programak erantzuten diela Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Lehen Hirurteko Planean ezarritakoari eta Parlamentu honek eskatutakoari? Nafarroako Gobernuak abian jarri al du aipatu mozioan, zeina aho batez onetsi baitzen, aurreikusitakoa?

2.- Eskaintza mugatzen da egunean bi bisitara abuztuko zortzi egunetan, egunean bisita bakarera iraileko zortzi egunetan eta egunean bisita bakarrera egunean urriko bost egunetan. Zergatik?

3.- Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Lehen Hirurteko Planaren seigarren puntuan jasotakoaren haritik, zer jarduera ari dira garatzen Nafarroan. Aipatu puntuan jasotakoari espresuki erantzuten diotenak?

Iruñean, 2009ko abuztuaren 10ean

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, SPRIN enpresa publikoari buruzkoa.

AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amanda Acedo Suberbiola andreak aurkeztutako galdera, SPRIN enpresa publikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau

egin dio Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

Foru parlamentari honek, bere lana betetze aldera, ondokoak jakin nahi ditu:

1.- Nafincok egin al du lankidetzari lanik edo bestelakorik SPRIN enpresarentzat? Hala bada, nolako lanak egin ditu? Zenbat denboran? Zer langilerekin? Zein izan da lan horien kostua SPRIN-entzat? Lan horiek jarraitzen al dute gaur egun? Noiz arte jarraituko dute?

2.- L'Urederra fundazioak egin al du patenteen, *know-en* edo bestelako jabetza industrial edo intelektualari buruzko eskubideen jabetzaren lagapen erabateko edo partzialik SPRIN enpresaren edota Nafarroako Gobernuaren alde?

3.- Zein egoeratan daude SPRINek PGA-Portugalia Airlines eta Portugalia Compañía Portuguesa de Transportes Aereos S.A. sozietateekin sinatutako kontratuak?

Iruñean, 2009ko abuztuaren 13an

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

Galdera, L'Urederra Fundazioaren instalazioei eta Tuterako nekazaritza-elikagaien hiriari buruzkoa.

AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amanda Acedo Suberbiola andreak aurkeztutako galdera, L'Urederra Fundazioaren instalazioei eta Tuterako nekazaritza-elikagaien hiriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo

Suberbiolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

Foru parlamentari honek, bere lana betetze aldera, ondokoak jakin nahi ditu:

1.- Zenbat ordaindu zaio ACRri L'Urederra fundazioaren instalazioak eraikitzeagatik? Zer sistema eta esleipen-prozedura jarraitu zen lanak esleitzeko? Noiz esleitu ziren eta zein izan da amaierako prezioa?

2.- Zein egoeratan daude Tuterako nekazaritza-elikagaien hiriko lurzati erreserba-kontratuak edo erosteko aukera ematen duten kontratuak? Zein da lurzati horien okupazio-mailaren edo erosketa konpromisoaren ehunekoa?

Iruñean, 2009ko abuztuaren 13an

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

Galdera, Los Arcosko abiadura handiko zirkuituari buruzkoa.

AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amanda Acedo Suberbiola andreak aurkeztutako galdera, Los Arcosko abiadura handiko zirkuituari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau

egin dio Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

Foru parlamentari honek, bere lana betetze aldera, ondokoak jakin nahi ditu:

1.- Zertan datza SPRINek Los Arcosko abiadura-zirkuituko pistak alokatzeko hartutako konpromisoa eta nori alokatzen zaizkio? Zenbat ordaintzen da, nork ordaintzen du eta nori, eta zenbat denboran?

2.- Zenbat diru gastatu du SPRIN enpresak, zuzenean, partaidetza duen beste enpresa batzuen bidez edota beste moduren batez, Los Arcosko abiadura-zirkuitua egiten? Xehakatu gastuak urteen arabera.

3.- Zein da SPRIN enpresak Los Arcosko abiadura-zirkuituaren garapen, eraikuntza, ustiaketa eta inbertsioekin zerikusi duten enpresetan duen partaidetzaren gaur egungo egoera?

Iruñean, 2009ko abuztuaren 13an

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

Galdera, Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoari buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoari buruzko galdera.

- Zergatik ez da zehaztu zer epetan jarriko diren abian aipatu planaren Parlamentuko eztabaidan sartutako neurriak?

- Noiz jarriko dira abian Parlamentuan erantsitako neurriak? Neurri bakoitzari dagokion epea jakin nahiko nuke.

Iruñean, 2008ko abuztuaren 24an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, Mendillorriko igerilekuei buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, Mendillorriko igerilekuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuo Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Mendillorriko igerilekuak egiteari buruzko galdera.

- Zergatik ez da bete oraindik Mendillorri Iruñeari atxikitze hitzarmena kirol azpiegiturei dagokienez?

- Noiz egingen dira igerilekuak?

Iruñean, 2009ko abuztuaren 25ean

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, AP-15 autobiarene 111. eta 114. kilometro-puntuetan egiten ari diren lanei buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, AP-15 autobiarene 111. eta 114. kilometro-puntuetan egiten ari diren lanei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko

Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Azken aldian, AP-15eko eskuineko erraia moztuta dago 111. kilometro-puntu, Iruñerako norabidean, eta 114. kilometro-puntu, Donostiarako norabidean. Azken egunotan ez da inolako jarduerarik nabari kilometro-puntu horietan. Hori dela eta, foru parlamentari honek hau jakin nahi du:

- Zer lan egiten ari dira AP-15eko 111. eta 114. kilometro-puntuetan?

- Zergatik 114. kilometro-puntu eskuineko erraia moztuta dago azken egunotan, bertan inolako jarduerarik ez badago?

- Zergatik jarraitzen du itxita 111. kilometro-puntu eskuineko erraiak?

Iruñean, 2009ko abuztuaren 26an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Departamentuak behin-behinekotasunari buruz hartutako neurriei buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Departamentuak behin-behinekotasunari buruz hartutako neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Behin-behinekotasunari buruzko galdera.

1. Zer neurri zehatz hartuko ditu zuren departamentuak behin-behinekotasuna murrizte aldera?

2. Zein da Gizarte Gaietarako Departamentuko behin-behinekotasun tasa abuztuaren 1ean?

Iruñean, 2009ko abuztuaren 26an.

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Departamentuaren zerbitzuen erabiltzaileei buruzko datuak zentralizatzeko sistemari buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Departamentuaren zerbitzuen erabiltzaileei buruzko datuak zentralizatzeko sistemari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Datuak zentralizatzeari buruzko galdera.

1. Zein da departamentuak erabiltzen duen sistema gizarte zerbitzuen erabiltzaileei buruzko datuak zentralizatzeko?

Iruñean, 2009ko abuztuaren 26an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, Txulapaingo eta Itzagako suteei buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Txulapaingo eta Itzagako suteei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerek, Legebiltzarreko

Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Iragan hilabeteetan suteak izan ziren Txulapainen eta Itzagan.

• Zeintzuk izan ziren Txulapain eta Itzagako suteen arrazoiak?

• Noizko idatziko du Nafarroako Gobernuak Itzaga Berreskuratzeko Plana?

• Noiz beteko du Nafarroako Gobernuak Itzaga Berreskuratzeko Plana?

• Nola ordainduko du Gobernuak eskualde horren berreskuratzeari ondoriozko gastua?

• Zenbat kostako da Itzaga berreskuratzeko plana idaztea eta hura betetzea?

Iruñean, 2009ko abuztuaren 31n.

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, abuztuaren 29an Baztan ibaira isuritako gasolioari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, abuztuaren 29an Baztan ibaira isuritako gasolioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko

Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

2009ko abuztuaren 29an, larunbata, 400 litro gasoil isuri ziren kamioi baten erregai-tangatik Baztan ibaira, Elizondoko parean.

• Zein izan dira isuriak ingurumenean eragindako kalteak?

• Istripuaren eragin ekologikoari buruz zer iritzi egin du Nafarroako Gobernuaren Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak?

• Gertakari horiei buruzko akta eta txosten guztien kopiak nahi genituzke.

Iruñean, 2009ko abuztuaren 31n

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Nafarroako Foru Komunitatean uztailean eta abuztuan gertatutako suteei buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Foru Komunitatean uztailean eta abuztuan gertatutako suteei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako

galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Uztailean eta abuztuan hainbat sute izan dira Nafarroan. Hori ikusirik, parlamentari honek hau jakin nahi du:

- Nafarroako Foru Komunitatean uztailean eta abuztuan izandako suteen kopuru zehatza.

- Zein izan da horietako bakoitzaren arrazoia?

- Zer neurri hartu ditu Nafarroako Gobernuak sute gehiagorik izan ez dadin?

- Sute bakoitzean erretako hektarea kopurua xehakatzeko nahiko nuke.

- Zenbatekoak dira suteek eragindako kalte ekonomikoak? Eman datuak sutearen arabera berezita.

- Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik suteek kaltetutako mendiak eta eremuak lehengoratzeko?

Iruñean, 2009ko irailaren 1ean

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, gazteen sexu-joerari buruz 2008ko irailaren 26an onetsitako mozioari buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, gazteen sexu-joerari buruz 2008ko irailaren 26an onetsitako mozioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduen babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernu Osasun Departamentuak idatziz erantzun dezan.

Galdera, gazteen sexu-joerari buruz 2008ko irailaren 26an onetsitako mozioari buruzkoa.

Zer egin du Osasun Departamentuak aipatu mozioan onetsitako hiru puntuak betetze aldera?

Iruñean, 2009ko irailaren 1ean

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko Endokrinologia Zerbitzuko gaixoei buruzkoa.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko Endokrinologia Zerbitzuko gaixoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentariaren elkarteko parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galderak aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzuteko:

Zioen azalpena

Duela gutxi, herritar baten gutun bat agertu zen hedabide idatzi batean, non azaltzen baitzuen Tuterako Reina Sofía Ospitaleko endokrinologia arloko gaixoen eta espezialistaren egoera.

Alde batera utzita gutuna igorri zuen gaixoaren iritziak, foru parlamentari honek jakin nahi du zein den zerbitzu horren egoera une jakinetan; izan ere, badakigu askotan bisitak bertan behera uzten direla. Hori dela eta, galdera hauei erantzutea nahi dut:

- Tuterako Reina Sofía Ospitaleko endokrinologiako espezialista bakarra ez dagoenean, nola konponduko da horren ondorioz sorturiko egoera?

- Egokia al da Tuterako Reina Sofía Ospitaleko endokrinologiako zerbitzua kontuan hartuta bertan artatzen den jende kopurua?

- Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuaren lehentasunen artean al dago Tuterako Reina Sofía Ospitaleko endokrinologiako zerbitzua hobetzea eta profesional gehiago hartzea?

Egokitzat jotzen bada zerbitzua hobetzea,

- Noiz handituko da zerbitzu horretako langile kopurua?

Iruñean, 2009ko irailaren 2an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, podologiako laguntzari buruzkoa.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, podologiako laguntzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Errege-

lamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galderak aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzuteko:

Zioen azalpena

Osasuneko kontseilariaren ekainaren 23ko 85/2009 Foru Aginduaren bidez desagertu zen Nafarroako Foru Komunitateko arreta podologikoa-ri buruzko adituen batzordea. Alor horretako adituek eginiko txosten bat onetsi behar denez, eta txosten hori arduradunei igorriko zaienez bertan jasotako gomendioak abian jartze aldera, hau jakin nahi dut:

Galdera

Nafarroako Gobenruko Osasun Departamentuaren ustez, zenbat denbora beharko du txostenen jasotako gomendioak abian jartzeko?

Iruñean, 2009ko irailaren 2an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, genetikoki eraldatutako laboreen kontrol neurriei, azterlanei eta hedapenari buruzkoa.

ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, genetikoki eraldatutako laboreen kontrol neurriei, azterlanei eta hedapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun ditzan:

Zioen azalpena

2009ko abuztuaren 14ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Ingurumeneko zuzendari nagusiaren ekainaren 1eko 1240/2009 Ebazpena argitaratu zen. Haren bidez, baimena ematen zen genetikoki eraldatutako artoarekin zenbait saiakuntza egiteko. Sustatzailea Monsanto Agricultura España, S.L. zen.

Horretaz gain, aipatu Nafarroako Aldizkari Ofizialean beste ebazpen bat ageri da, zuzendari nagusi berak emandako 1242/2009 Ebazpena, Nafarroako Unibertsitate Publikoari baimena ematen diona almidoi kopurua aldatzeko genetikoki eraldatutako patata-landareak alorrean sartzeko.

Halaber, badira zenbait urte Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak labore transgenikoei buruzko proiektuetan parte hartzen duela Nafarroako Unibertsitatearekin batera.

Galderak:

• Zein da genetikoki eraldatutako laboreen hedadura foru erkidegoan?

• Zenbat baimen eman zaizkie unibertsitate, enpresa, erakunde eta abarrei azterlanak egiteko, laborantzarako edota bestelako erabileretarako?

• Zeintzuk dira baimenen kontrolerako eta jarraipenerako neurriak eta zeintzuk lorturiko emaitzak?

Iruñean, 2009ko irailaren 3an

Eleduna: Ion Erro Armendáriz

